

Ingurumen Buletina

- 1. Zubietako erraustegian luzamendua exijitzen dugu*
- 2. AHT-ren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorraren kontua*
- 3. 2016ko Munduko Foru Soziala: Beste mundu bat beharrezkoa da; elkarrekin posiblea da!*
- 4. Nazioarteko Topaketa Ekosozialisten III. Ekitaldia*

1. Zubietako erraustegian luzamendua exijitzen dugu

Hainbat alderdi politikok, erakunde sindikalek, talde ekologistak eta gizarte zibilaren hainbat erakundek EAJ eta PSE-ri Zubietako erraustegiaren lizitazioaren baldintza administratiboetako agirien onartzean 6 hilabeteko luzamendua eskatu genien uztailean, baina haiek ez zuten eskaera onartu. Gure helburua Gipuzkoak behar dituen hondakinak kudeatzeko azpiegiturei buruzko eztabaida serioa, sakona eta adostua egon dadin zen. Gure ikuspuntua honako puntuetan oinarrituta dago:

Opakutasuna eta eztabaida demokratikoaren falta: Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da zein sinplista den orain arte Gipuzkoan egondako hondakinei buruzko eztabaida. Dena errausketa edo zaborteziaren arteko erabakira mugatuta dagoelako. Hondakinen bilketa edota sorkuntza eztabaidatik kanpoan utzita.

Bigarrenik, aipatzekoa da PIGRUG berriak edozein gauza esanda ere, erraustegia eraiki, eraikiko dutela.

Eta hirugarrenik, EAJ-PSE-k erabaki dutela

erraustegiaren lizitazioaren baldintza administratiboetako agiriak uztaileko 28an onartzea. Hain garrantzitsua den erabakia, eta hurrengo urteetako ingurumen politika hain estutik baldintzatuko duena, ezin da udan hartu eta gainera, horren kontra altxatu diren ahots guztiak entzun gabe.

Gizakien osasunean edukiko duen efektua zalantzan: Erraustegiek hondakinak arriskutsu eta toxiko material bihurtzen ditu. Horregatik, honen inguruan politikarien jarrera, ardura printzipioan oinarrituta egon beharko litzateke.

Herritar eta udalentsat aukera garestiena: Gipuzkoako herritarrek errausketa hau eduki dezaten urtero 34,5 miloi euro ordainduko dute 35 urtetan. Horrek tona bakoitzagatik 200€ ordaintzea esan nahi du, hau da, Estatuko erraustegi garestienean ordaintzen dena (Palma de Mallorcakoa) baino %50 gehiago ordaintzea.

Bideragarriagoak diren beste aukerak badaude: Erraustegiaz aparte beste aukerak ere badaude, hondakinen murrizketan, berrerabilean eta birziklatzean oinarriturik daudenak. Aukera horiek ez dira bakarrik

merkeagoak, ingurumen ikuspuntutik iraunkorragoak, osasungarriagoak eta enplegu gehiago sortuko dituztenak baitira.

Arrazoi hauen guztiengatik, luzamenduaren beharra errepikatzen dugu, Gipuzkoako ingurumen politikan gizarteari dagokion papera emateko.

2. AHT-ren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorraren kontua

2016ko maiatzaren 26an, 2014 urteari dagokion Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Kontua argitaratu zen. Argitaratze horren ildotik, AHTren lanen finantza-egoera komentatuko dugu. Konkreteki Gipuzkoako atalarena, Eusko Jaurlaritzak ordaintzen duena baita.

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da zein opakua den Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa eraikitze honen inguruan. Hau esan ahal izateko, honako hau hartu ditugu oinarri: Eusko Jaurlaritzak ez duela honen inguruan informaziorik eskaintzen eta 2016 urtean gaudela, Herri-Kontuen Euskal

Epaitegiak 2014 urteari dagozkion datuekin egindako txostena aurkeztu duela. Ondorio gisa, esan dezakegu gaur egun ez dakigula zenbateko zerga kopuru erabili den AHT ordaintzeko.

Eztabaida aipatutako Kontuan zentratuz gero, bi puntuk atentzioa eman digute:

1. Egiatzko kostuak aurreikusi zena gainditzen du: Lehenengo momentuan aurreikusi zen kostea 1.642 miloi eurokoa zen; gaur egungoa, ordea, 2.201,3 milioi euroraino igo da. Gai honen bueltan, Eusko Jaurlaritzari egin diezaiokegun kritika da ez duela behar bezala justifikatzen zerk eragin duen azken urte hauetan gailentzea (17 ataletatik 15etan). Ondorio gisa esan dezakegu aurrekontua merkegia zela eta beraz, eginezina eta irrealia zela.

2. Madrilek ez du ordaintzen: Lanetako finantzaketa problematikoa da. Egoera honen kausa Estatuaren Administrazio Orokorraren eta Euskal Erkidegoaren Administrazio Orokorraren arteko adostasunik eza da. Gainera, egoera trenbideko atal honetan areagotzen da,

Euskal Erkidegoaren Administrazio Orokorrari dagokiolako gero Kupoan zehar konpentsatzen den dirua aurreratzea.

2011. urtetik hona desadostasuna errepikatzen ari da. Momentu horretatik Euskal Autonomi Erkidegoa hasi baitzen Madrilek ordaindu behar zuen dirua ez jasotzen (213,1 miloi).

Egoera hau 2011eta 2014 urteen artean errepikatu denez, arazoak konpontzera baino areagotzera jo dute, gaur egun AHTren kontzeptuarekin Madrilek zor digun kopurua, 1.355 miloi euro izatera pasatu delako. Honen inguruan, Eusko Jaurlaritzaren jarrera ulertezina dela esan dezakegu, hona zuzendutako kontu-sailak geldiarazi edo murriztu ordez, bere horretan mantentzea erabaki duelako urtez-urte. Halaber, Madrilgo Gobernuaren jarrera kritikagarria dela esan dezakegu. Baliabideak beste zerbaiterako zuzentzea erabaki ordez, AHT ez den beste trenbideak lehenestea erabaki duelako, Valladolid eta Burgos artekoa esaterako.

Bi puntu hauek kontuan harturik, Eusko Jaurlaritzak gai honi dirua emateari utzi beharko lukeela uste dugu. Datuek

diotenez, gai honetara zuzentzen diren miloi guztiak gizarte-ongizateko beste partiden kaltetan doazelako (osasuna, hezkuntza, prestazio-sozialak...).

3. 2016ko Munduko Foru Soziala: Beste mundu bat beharrezkoa da; elkarrekin posible da!

Munduko Foru Soziala (FSM) gure garaiko arazoei konponbidea bilatzeko gizarte zibilaren topaketarik handiena da. 2001ean Brasilen sortu zen, eta harrezkero edizio bakoitzean 1.000 partaide biltzen du mila bat aktibatetetan (tailerrak, hitzaldiak, espektakuluak), gai asko landuz (gizarte garapena, ekonomia solidarioa, ingurumena, giza eskubideak, demokratizazioa...).

Ikus dezakegunez, ingurumena eta, hain zuzen, aldaketa klimatikoaren kontrako borroka izan zen Munduko Foru Sozialeko gai nagusietakoa; tailer, mobilizazio eta hitzaldi gehienak gai horretaz aritu ziren.

Gai horri buruz ELAk egindako lana oso eraginkorra izan zen: FTQ, Greenpeace, Québec Solidaire, TUED eta Alternatives erakundeekin batera tailer bat antolatu zuen, "Bidezko Trantsizioa, Ingurumena eta lana desberdintasunen kontra" izenekoa; bertako

hizlaria Mikel Noval izan zen, Ingurumen Arduraduna.

Hitzaldi honen lehenengo atala bidezko trantsizioa hain garrantzitsua zergatik den erantzuten saiatu zen: Gaur egun pairatzen ari garen krisi ekologiko eta sozial honen erantzuna, gure balore eta gizarteko oinarrian bila daiteke. Krisi hau ez da bakarrik banaketakoa, kapital eta laneko errentak bidezko era batean banatuz gero, gizartea bere kapazitate ekologikoen gainetik bizitzen jarraituko bailitzateke. Hori dela eta, produkzio eta kontsumo eredu aldaketa ezinbestekoa da, hots, ekonomia eta gizartearen aldaketa ekologiko bat.

Gero aipatu zuen 20/20/20 Programak ez zuela behar beste anbizio, produkzio sistema alternatiboen bilaketari lagundu ordez, sistema fosilak legitimotzat hartzen baitzituen. Horren adibide bat UE ETS instrumentua da; honen bitartez enpresek kutsatzeko baimena behar dute. Eta horren ondorioz, merkatu bat sortzen da non, ordainduz gero, enpresek nahi beste kutsatu dezaketen.

Beste aldetik, COP21 eta TTIParen inguruan hitz egin zen: Europar Batasuna

aldaketa klimatikoaren kontrako borrokako adibidetzat ezin dugu hartu. Ideia hau honako kontuetan islatzen da:

Lehenik eta behin, COP21en helburuak ez direlako behar bezain konkrituak. Bertan aginduta dagoenez, tenperatura globalaren gorakadak ezin du 2 gradu gainditu, baina hori zenbat emisioen baliokidea den zehaztu gabe.

Sinatzaileei bakarrik COP21ko helburuak betetzen saiatzea eskatzen zaie. Hau ikusten da bi ideietan: Alde batetik, estatu bakoitzak libreki zehazten dituelako bete beharko dituen neurriak. Eta beste aldetik, COP21en ondorioz, zigorrak ez direlako existitzen.

Gainera, “deskarbonizazio” hitza ez da behin ere agertzen. Bere ordez, emisio netoaren murriztapena agertzen da. Horrek esan nahi du kutsadura konpentsatu daitekeela, adibidez, toki batean zuhaitzak landatuaz.

Behin COP21 inguruan hitz eginda, COP21 eta TTIParen arteko harremana zein kontraesankorra den aipatu behar da.

COP21ek lehengaien esplotazioa mugatzen eta babesten duen bitartean, TTIP-ak muga guzti horiek baztertzea defenditzen du.

Neurri honetan eta beste batzuetan ere, argi dago TTIParen apustua gauzak dauden moduan jarrai daitezela dela, eta fosil energien daukagun mendekotasunarekin jarraitzea.

Bukatzeko, Alternatiba eta enplegu berde esperientzia interesgarriei buruz hitz egin zen, Gobernuak eta Akordio Komertzialek inposatzen dituzten konponbideak faltsuak eta arriskutsuak direla defenditzeko. Eta honen ondorioz, azpimarratu zen ezinbestekoa dela mobilizazio sozial indartsu bat, gure etorkizunaren kontrola jendearen esku jartzeko eta sistemaren esfortzu suntsizaillei aurre egin ahal izateko.

Munduko Foru Sozialari esker, erakunde sozial eta sindikal asko gure iritzi berekoak direla ikusi ahal izan genuen. Batez ere, antzekotasun handienak Amerikako erakundeekin ikusi genituen, CSA, CSN eta FTQrekin, besteak beste.

4. Nazioarteko Topaketa Ekosozialisten III. Ekitaldia

Irailaren 23 eta 25a bitartean, Topaketa Ekosozialisten hirugarren edizioa Bilbon ospatuko da, Genevan 2014ko urtarrilean eta Madrilen 2015ko ekainean ospatu zirenen jarraipen gisa.

Topaketa hauek arrazoi ezberdinengatik gomenda daitezke. Lehenengo eta behin, sindikatu, alderdi politiko, fundazio eta GKE desberdinen artean antolatu delako: ELA, LAB, STEILAS, ESK, EHKE, Podemos, Sortu, Aralar, Antikapitalistak, Equo edo Alternatiba, Hitz and Hitz, Ekologistak, Solidarités eta Mugarik Gabe. Ikus daitekeenez, organizazio hauek, herri honen eremu progresista eta alternatibo zabal baten ordezkariak gara, zalantzarik gabe indarra eta interesa izatearren arrazoi bat.

Bigarrenik, topaketa hauek jarraitzen duten ideologiagatik. Arazora zuzen jotzen baitute, gaur egungo egoera kritikoaren diagnostiko sakon bat eginez, eta indarrak batuaz, pertsonen eta naturarekiko bidezkoa den sistema alternatibo bat behar dugulako kontzientzia sortuz.

Nahiz eta gaur egungo egoera politiko eta ekonomikoaren diagnostiko bateratu bat izan, aurrerago joan eta egoeraren erantzukizuna sistemari esleitu behar zaio. Ez gaude soilik ondasunen banaketen krisi baten aurrean. Orain arte bezala kontsumitzen eta produzitzen jarraitzen badugu, gure planeta txikituko dugu, eta honen ondorioz, geure burua ere suntsituko dugu. Arazoaren oinarria jo behar da, kapitalismora.

Arazoa da gizarte kapitalisten produkzio, erreprodukzio, banaketa eta kontsumo ereduak bakarrik etekina eta pilotze pribatuak, hazkunde jarraitu eta mugagabe batean, bilatzen dituela, planetaren muga biofisikoak alde batera utziz.

Gainera, kapitalismoaren baitan, bereziki odoltsua den aro batean murgildurik gaude, aro neoliberallean, desberdintasun handiko gizarte bidegabea sortuz eta lan eta gizarte eskubideetan atzerapen izugarriak, askatasunen murrizketak eta demokraziaren gabezia ahalbideratuz.

Gure diagnostikoa hau izanda, natura

errespetatzen duen alternatiba helburutzat dugu. Horretarako produkzio eta kontsumo ereduetan erabateko aldaketa eman behar da. Sozialki bidezkoa den ekologiko eta gizarteko trantsizioa, ingurumenarekiko oreka bilatzen duena, genero perspektibarekin eta demokratiko erabakien bidez.

Gauden krisiaren gaierra bueltatuz, beharrezkoa da gogoratzea zein konplexua den eta zenbat atal dituen: ekologikoa, gizartekoa eta zaintzakoa. Krisi honen konplexutasunarekin koherente ahal izateko III. Topaketa Ekosozialistak lau ardatzatan antolatu dira: “Eredu produktiboa, zaintza eta enplegua”, “Elikadura burujabetza”, “Energia burujabetza” eta “Ekitate sozialerako eta Lurraren defentsarako hezkuntza”. Beraz, topaketa honetara etortzeko hirugarren arrazoia bere edukiak izango lirateke. Eduki horiek hurrengo paragrafoetan azalduko ditugu:

Lehenego egunean (Irailak 23 ostirala, 18 etan) gure topaketen aurkezpenarekin hasiko gara; hori egiteko arduraduna Iñaki Barcena izango da, EHUeko Politika Zientziako irakaslea dena. Horren ostean, **“Aldaketa klimatikoa, Parisen ondotik zer?”** izeneko

inagurazio plenarioa edukiko dugu Maxime Combes, Jon Palais eta Elizabeth Peredorekin.

Larunbata **“Nola egingo diogu aurre urgentzia ekologikoari larrialdi sozialetik eratorritako arazoei erantzunez?”** izeneko plenarioarekin hasiko da. Bertan honako hizlariak egongo dira: Manuel Garí, Daniel Tanuro, María Eugenia Rodríguez Palop eta Sandra Ezquerria. Eta hortik aurrera egun osoan zehar tailerrak edukiko ditugu. Aipatzekoa da tailer bakoitzak ardatz bat daukala hizpide. Bertan Yayo Herrero, Luis González Reyes, Gorka Bueno, María Pazos, Isabel Otxoa, Jorge Riechmann eta Luis Torrensek hartuko dute hitza, beste batzuen artean.

Tailerretan, krisi ekologiko eta enpleguaren arteko harremanari buruzko eztabaida bat egongo da. Bertan, Mikel

Noval Gizarte Politika eta ingurumeneko arduradunak Novalek hartuko du hitza.

Igandean, plenario sindikala edukiko dugu eta bertan ELAko Idazkari Nagusia izango da hizlari; plenario honen helburua trantsizio ekosozialistari buruzko sindikatuen posizioak aztertzea da. Geroago, Éric Toussaint, Juan Hernández Zubizarreta, Mario Zubiagaz osaturiko plenario politikoa egongo da.

Azkenik, manifestua irakurriko da. Ikus dezakegunez, topaketa hauek oso interesgarri eta anbizio handikoak izango direnez, ELAk denok parte hartzera gonbidatu nahi zaituzte.

Informazio gehiago jasotzeko link honetan daukazue topaketen programa eskuragarri:

<http://alterecosoc.org/programme/?lang=eu>